

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Legutioko udal instalazioetan kirol jarduerak emateko, kiroldegiko kantxa zaintzeko, pilotalekuru-rako sarrera kontrolatzeko eta jarduera fisikoan orientatzeko zerbitzuen kontratuaren esleipena

Alkatetzak 2019ko ekainaren 12an emandako 190612E Dekretuaren bidez, esleitu egin zen Legutioko udal instalazioetan kirol jarduerak emateko, kiroldegiko kantxa zaintzeko, pilotalekuru-rako sarrera kontrolatzeko eta jarduera fisikoan orientatzeko zerbitzuen kontratua; eta horren formalizazioa argitaratu egiten da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

1. Erakunde esleitzaila:

1.1 Erakundea: Legutioko Udala.

1.2 Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: <http://www.legutio.eus>

2. Kontratuaren xedea:

2.1 Kontratu mota: zerbitzuak.

3. Xedearen deskribapena: Legutioko udal instalazioetan kirol jarduerak emateko, kiroldegiko kantxa zaintzeko, pilotalekurako sarrera kontrolatzeko eta jarduera fisikoan orientatzeko zerbitzuak.

4. Aldizkaria eta kontratatzailearen profila. Litzitazio iragarkia argitaratu zen eguna: ALHAOren 45. zenbakia, 2019ko apirilaren 12koa.

4.1 Izapidetzea: arrunta.

4.2 Prozedura: irekia.

5. Kontratua formalizatzea:

5.1 Esleipen eguna: 2019ko ekainaren 12a.

5.2 Kontratista: Athlon, S. Koop.

5.3 Esleipenaren zenbatekoa:

a) A motako jarduerak emateko zerbitzua (baldintza teknikoen agiriaren 3. puntuaren arabera):

– SHEE edo Jarduera Fisikoetako eta Kiroletako Zientzietako lizentziadunak, eta dagokion federazioko goi mailako teknikariak (entrenatzaile nazionalak): 30,21 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.

– Hezkuntza fisikoan diplomatuak eta dagokion autonomia erkidegoko federazioko teknikari tituludunak: 27,83 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.

– Jarduerarekin zerikusia duten ikastaroak egin dituztenak: 25,05 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.

b) B motako jarduerak emateko zerbitzua (baldintza teknikoen agiriaren 3. puntuaren arabera):

– Feldenkrais: 34,81 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.

- Yoga: 40,48 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.
- Irristaketa: 30,36 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.
- c) Kantxazain zerbitzua: 19,33 euro orduko, astegunetarako, eta 22,26 euro orduko, jaiegunetarako, garraioa barne, eta BEZa aparte.
- d) Jarduera fisikoan orientatzeko zerbitzua:
 - SHEE edo Jarduera Fisikoetako eta Kiroletako Zientzietako lizentziadunak, eta dagokion federazioko goi mailako teknikariak (entrenatzaile nazionalak): 40,48 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.
 - Hezkuntza fisikoan diplomatuak eta dagokion autonomia erkidegoko federazioko teknikari tituludunak: 30,36 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.
 - Jarduerarekin zerikusia duten ikastaroak egin dituztenak: 25,30 euro orduko, garraioa barne, BEZa aparte.

Legutio, 2019ko ekainaren 14a

Jarduneko alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA